

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

278/2016 Foru Agindua, azaroaren 9koa, Gasteizko hiri antolamenduko plan orokorreko "ESISA-PEMCO-CAMPSA" 11 BIPBaren konpentsazio batzordearen zuzendaritza organoan egindako aldaketa inskribatzekoa Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan

AURREKARIAK

Lehena. Ensanche 21 Zabalgunea udal sozietateak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorraren 2016ko urriaren 28ko sarrera data daukan idazkiaren bidez, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zion "ESISA-PEMCO,CAPSA" 11 BIPBaren konpentsazio batzordeko zuzendaritza organoan izandako aldaketa, zegokion inskribatzea egin zedin Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan.

Bigarrena. 11 BIPBaren konpentsazio batzordea Arabako Hirigintza Entitate Laguntzaileen Erregistroan inskribatu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 23ko 236/2005 Foru Aginduaren ondorioz.

OINARRIAK

Lehena. "ESISA-PEMCO-CAMPSA" 11 BIPBaren konpentsazio batzordeko idazkariak ziurtatzen du ezen 2015eko azaroaren 11n egindako batzar orokorrean erabaki zela konpentsazio batzordeko presidente izendatzea Alvaro Iturrutxa Vélez de Elburgo, eta diruzain Iñaki Díez Unzueta, eta mahaikide Rafael Ramírez Aramendia jauna, María Pascual López andrea eta Ainhoa Guevara Etchepare andrea.

Bigarrena. Hirigintza Kudeatzeko Arautegiak 164. artikuluan xedatzen duenez, itun batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola, zuzendaritza organoko izendapen aldaketak, Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatuko dira.

Hirugarrena. Hirigintza Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du entitatean izandako aldaketak eta haiek erregistroan inskribatzeko proposamena onartuz.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Agindua ematea Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzeko Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "ESISA-PEMCO-CAMPSA" 11 BEPBaren konpentsazio batzordeko zuzendaritza organoan egindako aldaketak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO